

Liburutegiaren funtzionamenduaz hausnarketa egiten ari dira Idiazabalen

Idiazabalgo Udalak gai horrekin lotuta bilera deitu du hilaren 27rako eta herritarrei parte hartzeko deia egin die.

ESTITXU IMAZ.

Liburutegiaren egituraz eta funtzionamenduaz hausnarketa egiten ari da Idiazabalgo Udala. Liburutegia herritarrek erabiliko dute ordea, eta haien iritzia jaso nahi du udalak. Asmo horrekin bilera antolatu dute asteazkenerako, hilak 27, eta idiazabaldarrei bertan parte hartzeko deia egin diete.

Lehen kultur etxea izandako eta orain udaletxea eta liburutegia hartuko dituen eraikineko lanak otsailaren bukaerarako amaituta egotea aurreikusten dute. Ioritz Imaz Idiazabalgo alkateak jakitera eman duenez lanak martxa onean doaz eta aurki hornitzen hasi beharko dute.

Liburutegia lehen ere eraikin horretan zegoen, baina orain kokapen desberdina izango du. Eraikinaren beheko partean ezkerrean jarriko dute. Lehen gaztetxea izandako zatia zein hari pegatuta zeuden gelak hartuko ditu bibliotekak, guztira 127 metro koadroan. Imaz alkateak aditzera eman duenez orain espazio hori antolatzea eta funtzionamenduan jartzea da asmoa.

Aholkularitza

Gai horrekin lotuta, Idiazabalgo Udalak aholkuak jaso ditu Eusko Jaurlaritzako teknikarien eskutik, liburutegietako eskumena Jaurlaritzak baitu.

Adituen arabera liburutegien funtzioa eta funtzionamendua aldatuz doaz. "Lehen liburutegia liburuak hartu eta isiltasunean irakurtzeko edo lanak egiteko lekua zen. Orain, noski, ez da kantuan aritzeko leku bat, baina topaleku bat da azkenean eta garai berrietara egokitzeko aholkatu digute, bai diseinuari dagokionez eta baita funtzionamenduari dagokionez ere, dio Imazek. Zentzu horretan ari da egiten hausnarketa Idiazabalgo Udala.

Jaurlaritzako adituen arabera teknologia berriak sartzea guztiz gomendagarria da, eta horretarako diru laguntzak ere ematen dituzte. "Liburu asko edukitzea ez dela egokia aipatu digute. Onena beharrezkoak iruditzen zaizkigun liburuak bertan edukitzea eta gainerakoak beste liburutegiei eskatzea litzatekeela esan digute, liburutegien sarea horretarako sortu baitzen. Horrela, liburutegiak duen espazioa liburuak edukitzeaz gain, elkartzeko, ikasteko eta teknologia berriak erabili ahal izateko aprobetxatu ahalko da.

Herritarren ekarpenak jasotzeko asmoa

Alkateak aipatu duenez Jaurlaritzako teknikariek aholku horiek guztiak eman arren, liburutegia herritarrek erabili behar dute eta "beraiekin kontatu nahi dugu, euren iritzia, ekarpenak jasoz.

Bilera datorren asteazkenean egingo dute. Herritarrak bertara "buruari buelta batzuk emanda joatea nahiko lukete. "Espazioa nola antolatuko luketen, liburutegiak zein funtzionamendu izango lukeen, egokia zein ordutegi izango litzatekeen eta horrelako beste zenbait gairi buruz ideiak jasotzea nahiko genuke.